

## Euskaltegietako ikasturte berrian erritmo eta behar askotarako eskaintza

■ Matrikula egiteko epea irekia da Udal Euskaltegian eta AEKn ■ Txema Mercado Zinegotziak eta euskaltegietako ordezkarien atzo eman zuten prentsurrekoia ■ Hernaniarrak animatu nahi dituzte euskera ikastera.

HERNANIKO Euskaltegietan matrikula egiteko aukera zabalik dago dagoeneko eta kurtso berriaren eskaintzaz eta euskera ikastearren beharraz hitz egiteko prentsurrean bildu ziren: Txema Mercado Euskera Zinegotzia; Oihana Romero, AEK-ko ordezkaria eta Eli Insausti, Udal eskaltegiko ordezkaria.

Azken urteetako matrikulazioari buruz, euskaltegietako ordezkarien esan zuten Hernanin ez dela hain nabarmena izan Helduen Euskalduntze eta Alfabetatzekizan duen beherakada. Izan ere, Hernanin matrikulazioa mantendu egin da.

### Euskeraren erabilera

Txema Mercadok gogorazi zuen Hernanin SEIk egin zuen neurketa soziolinguistiko. Neurketa honen arabera hernaniarren %54,7k daki euskeraz eta erabili %27,2ak. "Datu hauek adierazten dute hernaniarren erdiak ez dakie la euskaraz eta dakinetenatik erdiek ez dutela euskara erabiltzen" esan zuen Txema Mercadok.

Horrekin batera, azaldu



Eli Insausti (Udal euskaltegia), Txema Mercado (Zinegotzia) eta Oihana Romero (Aek).

zuen, euskaltegiek zeregin haundia dutela Hernanin: herritarrei erritmo eta modulu zabalak eskaini, hauek euskeria ikasi eta hobetu dezaten. Herritarrek beren aldetik ere lan haundia dutela gogorarazi zuen Txema Mercadok: "euskalduz izanda gure maila hobetuz, euskeria egiteko ohitura sendotuz eta euskeraz gutxi edo ezer ez dakinenei ikasiz" adierazi zuen.

**Udalaren diru laguntzak**  
Udalak diru laguntzak eskain-

Udaletxeak diru laguntza sistema du eta matrikularen %75a arte ordaindu dezake

tzen ditu euskeria ikasi nahi duten herritarrentzat. Beka sistema honetan kontutan hartzen da, batez ere, ikaslea langabeziaren dagoen eta ikaslearen asistentzia. Beka sistema honen bidez matrikularen

%75a arte ordaindu dezake.

### Denetariko beharrak

Euskaltegien erronka da behar oso ezberdinak dituzten ikasleetara egokitzea eta horregatik gero eta zerbitzu personalizatuagoak ari dira martxan jartzen: tutore baten bidez norberak bere erritmo eta beharren arabera ikasi, taldean ikasi, ordenadore bitartez (etxean ala euskaltegian) ikasi, titulu ezberdin tarako klase bereziak, modulu bereziak, eta abar. □

### UDAL EUSKALTEGIA

- Euskalduntze eta alfabetatze maila guztiak.
- Guraso eta merkatarentzat talde bereziak eguerditan.
- Titluak prestatzeko klaseak: EGA, HABERen lehenengo eta bigarren maila, hizkuntza eskakizunak.
- Erabilera bultzatzeko ekintzak: eskurtsioak, tailerrak...
- Tutoretza sistema.
- Iraupena: irailaren 27tik ekainaren 22ra.
- Matrikulatzeko epea: irailaren 24ra bitartean.
- Ordutegia: goizeko 09:00etatik 13:00etara eta arratsaldeko 16:00etatik 19:00etara.
- Helbidea: Karrobieta 63, anbulatorio zaharrean.
- Telefona: 943-331896.

### AEK EUSKALTEGIA

- Euskalduntze eta alfabetatze maila guztiak.
- Gurasoentzat talde bereziak eguerditan.
- Titluak prestatzeko klaseak: EGA, HABERen lehenengo eta bigarren maila, hizkuntza eskakizunak.
- Erabilera bultzatzeko ekintzak: eskurtsioak, tailerrak...
- Tutoretza sistema, ordenadore ikasgela, etxetik ikasi ordenadore bidez, idazten ikasteko kurtsoa on-line.
- Iraupena: urriaren 4tik ekainaren 22ra.
- Matrikulatzeko epea: urriaren 1a bitartean.
- Ordutegia: goizeko 09:00etatik 13:00etara eta arratsaldeko 17:00etatik 21:00etara.
- Larramendi 11, behea. 943-557801/943-557879.

**MARI FE ARRANDEZIA**  
ORDUTEGIA  
GOIZEN: 8:00 ~ 14:00  
ARRATSALDEAN: 16:30 ~ 20:00  
NAGUSIA 36 ☎ 943 550 489

**AMEGAR**  
Etxe tresnak Altzariak  
Elektrogailuak TB- Bideoak- HI-FI-Opariak  
Sukalde altzariak  
Tel.: 943 55 11 25  
Faxa: 943 55 16 03

**Yaben English School**  
Iturriaga z/g - 20120 Hernani  
Tel.: 943 33 17 63

**CONGRATULATIONS / ZORIONAK / FELICIDADES**

<b>PET:</b>	Maddi Amatriain Arrozpide: Pass with merit / Bikain / Sobresaliente
	Txomin Astiasuinzarra Bereziartua: Pass / Nahikoa / Aprobado
<b>KET:</b>	M Jesus Senperena Urdanpilleta: Pass / Nahikoa / Aprobado
	Iñigo Sevillano Orbegozo: Pass with merit / Bikain / Sobresaliente
<b>FLYERS:</b>	Leire Goñi Irazustabarrena: Pass / Nahikoa / Aprobado
<b>MOVERS:</b>	Itxaso Gimón Polo: Ten Shields / Oso ongi / Notable
	Izaro Quevedo Senperena: Eleven Shields / Oso ongi / Notable
	Ilargi Quevedo Senperena: Twelve Shields / Oso ongi alta / Notable alto

**WELL DONE**

## Antton Karrera legebiltzarkideak hitzaldia emango du gaur Biterin

■ Uztailaren egindako Asanbladan hartutako erabakiak eta Ezker Batua-ren erronkak azalduko ditu ■ Gaur, 19:30etan Biteri kultur etxearen

ANTTON Karrera Ezker Batuko Legebiltzarkideak hitzaldia emango du gaur “Ezker Batua-Berdeaken 6garren asanblada eta Ezker politikoaren erronkak” izenburupean. Hernaniko Ezker Batuak antolatutako hitzaldia da eta uztailaren egindako batzarrako ondorioei buruz hitz egingo du hainbat gairen artean. Batzar horretan EAEko Ezker Batuak Izquierda Unidatik nolabaiteko autonomia izateko erabakia hartu zuen besteak beste eta estruk-

tura berriaren nondik norakoak azalduko ditu.

### Ibarretxe Plana

Bestalde, Hernaniko Ezker Batua-tik jakitera eman dugunetean, Ibarretxe Planari buruz ere hitz egingo du Legebiltzarkide amezketarrak. Biar bertan Legebiltzarrean eztabaidatzen hasteko dute Ibarretxe plana eta Karrerak Ezker Batuak honen aurrean duen jarrerari buruzko pista batzuk emango ditu. Aurrera begirako Ezker Batua alder-

diaren erronkak ere azalduko ditu gaur Parlamentariak eta jendearen dudak azaldu.

Hitzaldia gaur da, arratsaldeko 19:30etan Biteri kultur etxearen. Hernaniko Ezker Batuak jakitera eman duenez hitzaldiren bat urtero antolatzen dute kurtso berriaren hasieran, kurtso politikoa eta Ezker Batuaren ildoak nondik joango diren informatzeko. Hernaniko Ezker Batuak dei egin die interesatu guztiei aurreko kurtsoa azaltzen. □

## Chillida-Lekun dokumental zikloa egunero Eduardo Chillidari buruz

■ Hilaren 25 arte egunero botako dituzte, goizeko 10:45etatik eguerdira arte.



Chillida-Lekuko auditorian dira proiekzioak.

CHILLIDA Lekun dokumentalak botatzen ari dira egun hauetan, Eduardo Chillidari buruz. 6 dira botatzen ari diren dokumentalak eta hauen bitartez Eduardo Chillidari buruzko ikuspegia ezberdinak ezagutu ahal izango dira. Dokumentalak hilaren 25, larumbata arte botako dituzte, eta ordutegia da: goizeko 10:45etatik eguerdiko 15:00ak arte. Dokumentalak ikusteko ez da ordaindu behar eta Chillida-Lekuko auditorioan da proiekzioa.

### 6 dokumental

6 dira ikusi daitezkeen dokumentalak: Jose Julian Bakedanoren Retrato en casa; Susana Chillidaren *De Chillida a Hokusai*; Laurence Boultting-en *Chillida*; Susana Chillidaren *Chillida, el Arte y los Sueños*; Gonzalo Suarezen *Tindaya-Chillida: un Proceso de Creacion* eta Larry Boulttingen *5 Fragmentos*.

Chillida-Lekuren asmoa izan da zinemaldiarekin bat egitea dokumental ziklo honekin, nahiz eta jende asko ez den gerturatu oraindik. □

## SASKIBALOIA

### Hernanik ezin irabazi lehen partidua, gogotik borrokatu arren

Hernanik Azpeitiak	37
	45

Kronikan jarri genuen aurten bigarren mailan jokatuko zuela Hernanik, baina, oker zegoen hori, Hernani one-nekin ariko baita, iaz mailaz igotzea lortuta.

Ea ba galtzen hasi arren, maila onari eusten dion Hernanik eta bestelako emaitzak ere etorriko dira. □

## ERREMONTEA

### Ezkurra-Aizpuru/Zeberio II-Eizagirre, estelar dotorea gaur Galarretan

PUNTA puntako erremonte jaialdia dago gaur ere Galarraga pelotalekuaren. Estelarrean Ezkurra eta Aizpurua ariko dira Zeberio II eta Eizagirren kontra. Eizagirre, iazko buruz buruko txapelduna, lesionatua egon da denbora luzean, baina, joan den asteartean hasi zen berri ez jokatzen eta partidu borobila eginda irabazi zuten berak eta Bitorriak Altuna II eta Etxa-

beren kontra 40-32. Gaur, aurtengo buruz buruko txapel-duna Ezkurra eta Aizpurua izango dituzte aurrean, berak eta Zeberiok eta maila altuko partidua izatea espero da. Beste partiduak dira: Iturrade-Martinez I/Larra-Gaztelu; Altuna I-Urk/Iñigo-Iriarte; eta Sarasua-Olazar-/Agirresarobe-Aizpurua II. Jaialdia arratsaldeko 16:00etan hasiko da. □

## Lasarteko Ttakun taldeak begirale ikastaroa antolatu du

LASARTEKO Ttakun kultur elkarrean denbora libreko begirale ikastaroa antolatu du, Lasarten bertan. Ikastaro honetan inguruko herrietako gazteek hartu dezakete parte eta 18 urtetik gorako gazteei dago zuzendua. Izena eman nahi duenak irailaren 28rabitartean eman behar du izena.

**Aisiaaldi begirale titulua**  
Ikastaroak kurtso osoko iraupena du eta larunbatetan izango dira klaseak. Saioak Urtxintxa eskolak emango ditu eta ikastaroa egiten duten gazteek aisiaaldi edo denbora libreko begirale titulua lortuko dute. Informazio gehiago telefono honetan: 943-714448. □

## ZERBITZUAK

### TELEFONOAK

- Taxiak: 943 550093
- Udalzaingoak: 943 333288
- DYA: 943 464622
- Autobusak: 943 556662
- Anbulatorioa: 943 006666
- Jokalaria anonoimoa: 943 331103
- Alkoholiko anonoimoa: 943 331103

### FARMAZIAK

- Egunez: Etxebeste Elkano 2 ☎ 943 552087
- Gauzez: Etxebeste Elkano 2 ☎ 943 552087

## IRAGARKI MERKEAK

Pisua salgai Txantxilan (parking-aren ondoan). 75 m<sup>2</sup>, dena kanpokaldera, oso argitsua, ganbararekin. Deitu: 675 70 60 21

Goizeko 7:45etik 9:45ra etxeko lanak egiteko norbait behar degu. Deitu: 943 55 02 34

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta bertebra, reflexologia, auriculoterapia,...: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Sta Barbara 42)

## HERNANI HIZKUNTZAK

(Gure Ingelesetxea)  
ZORIONAK guziontzat Advanced eta First azterketak gaintzearagatik.

DATORREN IKASTURTERAKO MATRIKULA ZABALIK

Deitu Alan/Joe: 943 33 11 08 - KALE NAGUSIA 41, 1

**IKASTAROAK**

**RURKJ**  
Eskulana • Arte Ederra  
Elkano 6 - Tel.: 943 55 72 56

**EGURRA:** Haur eta helduentzat logelak, altzari auxiliaria,...

**TELÀ:** Manteleria, kojinak, kordinak, erropak,...

**SEDA:** Zapiak, kordinak, kuadroak,...

**ESKAIOLA, ALABASTRINA:** Figurak, jaiotzak,...

**BIDRIO DEKORAZIOA**

Goiz eta arratsalde - Haur eta helduentzat  
Irakasleak:  
OIHANA INSAUSTI - PEIO GOELLO

**AURKI ESKULANAK**  
Elkano 6- 943 55 72 56

**Haizea LABOREAK**  
KORTSETEGI - MIHISEDENDA  
Kardaberaz 2 - Tel.: 943 55 55 19

**KORTINAK, TOAILAK, TAPETEAK,**  
KUADROAK eta abar egiteko teknika  
ezberdinak erakusten ditugu:  
Punto Cruz, Bainika, Gaintzilloa, Bolillo,  
Punto erdia, zinta puntoa eta abar...

**ENKARGUZKO LANAK ERE**  
EGITEN DITUGU

**HAIZEA LABOREAK**  
Kardaberaz 2 - 943 55 55 19